

# Tolosaldeko 28 herrietatik 26tan irabazi du EH Bilduk

%43,93ko abstentzioa izan da eskualdean; alderdi nagusien artean, EH Bilduk eta PSE-EEk gora egin dute, eta EAJ, Elkarrekin-Podemos eta PP-Ciudadanos koalizioak behera // 2-5

## Jexux Mari Mujika final-laurdenetan geratu da

Ibartar aizkolariak ezin izan du Eneko Otañoren aurka // 7

«Gertatutako guztia eta gero, pozgarria da bueltan izatea»

**IKER GALARZA**  
**GURE ZIRKUA**

Ostiralean hasi eta abuztuaren 30era arte, Orion izango da Gure Zirkua // 6



IMANOL GARCIA LANDA

## TOLOSALDEA BANDERA ETXERA

Tolosaldea traineruak ETE Ligako lehen jardunaldia irabazi du, Tolosaldeko I. Ikurrina bereganatuz; Pasaian jokaturako lehen estropadan lau ehuneneko aldea atera dio Zumaia bigarren traineruari // 7

### ERDI MAILA (D Eredua)

Mekanizazioa (eleantza ingelese aukeran)  
Instalazio Elektriko eta Automatikoak (eleantza ingelese aukeran)  
Soldadura eta Galagaragintza  
Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak (eleantza ingelese aukeran)  
Merkataritza Jarduerak

### GOI MAILA (D Eredua)

Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (eskaintza partziala aukeran)  
Instalazio Termiko eta Fluidodunen Mantenimendua  
Sare-Informatika Sistemen Administrazioa (eleantza ingelese aukeran)  
Administrazioa eta Finantzak (eleantza ingelese aukeran)  
Automatizazioa eta Robotika Industrialak  
Metal-Eraikuntzak  
Mekatronika industrialak (eleantza ingelese aukeran)

2020/21 ikasturtea

# Matrikula



uztailaren 13tik 17ra  
Lan poltsa ETHAZI  
kompetentziak DUAL IKASTN  
Erasmus + IKT Eleaniztasuna

eskaintza guztia  
**EUSKARAZ**  
Lan etorkizunerako  
lehen urratsak

Derrigorrezkoa  
hitzordua hartzea:  
**www.tolosaldea.com**  
943651147



Santa Luzia 17 - Tolosa  
943 65 11 47  
**www.tolosaldea.com**



<https://www.facebook.com/tolosaldea>  
<https://twitter.com/TolosaldeaLH>  
<https://www.youtube.com/TolosaldeaLH>  
[tolosaldeahii](https://www.tolosaldea.eus)



| HERRIA          | ERROLDA |        | EH BILDU |       | EAJ   |       | PSE-EE |       | ELKARREKIN PODEMOS      |           |       | PP+CS |      |      | ABSTENTZIOA |       |
|-----------------|---------|--------|----------|-------|-------|-------|--------|-------|-------------------------|-----------|-------|-------|------|------|-------------|-------|
|                 | 2020    | 2016   | 2020     | 2016  | 2020  | 2016  | 2020   | 2016  | Elkarrekin Podemos 2020 | EQUO 2020 | 2016  | 2020  | 2016 | 2016 | 2020        | 2016  |
|                 |         |        |          |       |       |       |        |       |                         |           |       |       |      |      |             |       |
| Abaltzisketa    | 257     | 252    | 70       | 79    | 84    | 73    | 2      | 0     | 4                       | 0         | 7     | 0     | 0    | 0    | 37,35       | 35,32 |
| Aduna           | 358     | 343    | 134      | 139   | 59    | 68    | 0      | 0     | 7                       | 2         | 16    | 0     | 2    | 0    | 41,34       | 32,65 |
| Albiztur        | 225     | 248    | 42       | 45    | 65    | 79    | 8      | 8     | 4                       | 0         | 13    | 0     | 0    | 0    | 45,33       | 41,13 |
| Alegia          | 1.283   | 1.258  | 357      | 391   | 230   | 286   | 40     | 25    | 43                      | 3         | 66    | 12    | 10   | 2    | 45,36       | 36,72 |
| Alkiza          | 260     | 259    | 80       | 76    | 58    | 57    | 3      | 2     | 8                       | 2         | 13    | 1     | 2    | 0    | 39,62       | 40,54 |
| Altzo           | 337     | 309    | 127      | 139   | 63    | 59    | 0      | 0     | 9                       | 0         | 17    | 0     | 1    | 0    | 38,28       | 28,16 |
| Amasa-Villabona | 4.318   | 4.368  | 1.101    | 1.064 | 844   | 957   | 183    | 180   | 93                      | 16        | 311   | 55    | 102  | 31   | 45,51       | 38,23 |
| Amezketza       | 722     | 720    | 219      | 224   | 152   | 132   | 4      | 7     | 7                       | 1         | 32    | 1     | 7    | 0    | 45,71       | 42,06 |
| Anoeta          | 1.526   | 1.517  | 492      | 459   | 271   | 311   | 56     | 48    | 36                      | 6         | 124   | 25    | 35   | 3    | 40,69       | 33,82 |
| Asteasu         | 1.159   | 1.109  | 328      | 306   | 190   | 189   | 12     | 17    | 22                      | 5         | 67    | 8     | 9    | 2    | 50,30       | 45,81 |
| Baliarrain      | 95      | 92     | 44       | 39    | 11    | 10    | 1      | 0     | 0                       | 0         | 1     | 0     | 0    | 0    | 38,95       | 44,57 |
| Belauntza       | 190     | 198    | 48       | 48    | 41    | 43    | 2      | 2     | 2                       | 1         | 13    | 0     | 1    | 0    | 46,32       | 44,95 |
| Berastegi       | 850     | 844    | 267      | 253   | 211   | 224   | 11     | 8     | 11                      | 3         | 41    | 3     | 10   | 0    | 38,94       | 34,72 |
| Berrobi         | 437     | 443    | 115      | 128   | 70    | 71    | 6      | 13    | 3                       | 0         | 21    | 1     | 9    | 3    | 52,86       | 44,24 |
| Bidania-Goiatz  | 396     | 384    | 147      | 143   | 69    | 68    | 5      | 1     | 6                       | 1         | 18    | 3     | 5    | 0    | 40,4        | 38,02 |
| Elduain         | 183     | 174    | 60       | 60    | 44    | 41    | 0      | 0     | 1                       | 0         | 7     | 0     | 2    | 0    | 42,08       | 35,63 |
| Gaztelu         | 118     | 121    | 41       | 44    | 32    | 35    | 0      | 1     | 7                       | 0         | 12    | 0     | 1    | 0    | 27,97       | 23,14 |
| Hernalde        | 238     | 254    | 47       | 54    | 45    | 55    | 4      | 1     | 3                       | 3         | 14    | 0     | 1    | 4    | 55,46       | 48,43 |
| Ibarra          | 3.198   | 3.224  | 720      | 749   | 568   | 639   | 162    | 148   | 100                     | 12        | 300   | 28    | 63   | 16   | 48,91       | 38,96 |
| Ikaztegieta     | 348     | 367    | 117      | 119   | 80    | 88    | 7      | 4     | 9                       | 1         | 27    | 1     | 5    | 0    | 36,78       | 32,70 |
| Irura           | 1.234   | 1.224  | 330      | 302   | 239   | 280   | 38     | 30    | 22                      | 3         | 87    | 0     | 13   | 14   | 47,33       | 39,62 |
| Larraul         | 188     | 183    | 64       | 71    | 25    | 23    | 7      | 3     | 6                       | 0         | 13    | 2     | 1    | 0    | 42,55       | 36,07 |
| Leaburu-Txarama | 277     | 269    | 95       | 108   | 60    | 61    | 3      | 0     | 4                       | 1         | 12    | 0     | 1    | 0    | 38,63       | 30,86 |
| Lizartza        | 465     | 441    | 230      | 222   | 53    | 66    | 1      | 0     | 5                       | 2         | 16    | 0     | 0    | 1    | 37,20       | 29,71 |
| Orendain        | 163     | 145    | 84       | 63    | 33    | 36    | 0      | 1     | 1                       | 0         | 5     | 0     | 0    | 0    | 25,77       | 26,21 |
| Orexa           | 89      | 89     | 70       | 74    | 4     | 2     | 0      | 0     | 0                       | 0         | 1     | 0     | 0    | 0    | 16,85       | 11,24 |
| Tolosa          | 15.068  | 14.809 | 3.598    | 3.259 | 3.473 | 3.779 | 576    | 545   | 449                     | 97        | 1.280 | 197   | 377  | 82   | 42,74       | 35,82 |
| Zizurkil        | 2.238   | 2.226  | 596      | 579   | 383   | 461   | 121    | 102   | 45                      | 6         | 157   | 27    | 47   | 15   | 46,02       | 36,79 |
| TOLOSALDEAN     | 36.220  | 35.870 | 9.623    | 9.237 | 7.457 | 8.193 | 1.252  | 1.146 | 907                     | 165       | 2.691 | 364   | 704  | 173  | 43,93       | 36,94 |

\* 2016an Elkarrekin Podemos beste alderdi batzuekin batera aurkeztu zen, tartean Equo, aurtan ordea, Equo bakarrik aurkeztu da.  
\* Duela lau urte PP eta C's ez ziren batera aurkeztu, aurtan ordea, bai.

# 2.166 botoren aldekoa du EH Bilduk EAJrekiko Tolosaldean

EH Bildu nagusitu da hauteskundeetan, bigarren indarrarekiko aldekoa handituz; hirugarren indarra PSE-EE da, eta Elkarrekin Podemos laugarren izatera pasa da

## Erredakzioa

Tolosaldean EH Bilduk lortu du boto gehien Eusko Legebiltzar- rarako Hauteskundeetan. 2016an guztira, 9.237 boto izan zituen, eta herenegun 386 gehi- go jaso zituen. EAJk berriz, 736 boto gutxiago eskuratu ditu. Igandean botoa emateko aukera

zuten eskualdeko 36.220 herrita- rretatik, hortaz, 9.623k aukeratu zuten EH Bildu eta 7.457k EAJ. Herriz herriko emaitzei errepa- ratuta 28 herrietatik 26tan lehen indarra izan da EH Bildu. Abal- tzisketan eta Albizturren, aldiz, bigarren geratu da, EAJren atze- tik. Abaltzisketan lehen indarra izan da EAJ; 84 boto izan ditu eta

EH Bilduk 70. EAJk gora egin du herri horretan; 2016an baino 11 boto gehiago izan ditu. Albiztu- rren EAJk 65 boto izan ditu, nahiz eta 2016tik 14 galdu di- tuen.

Pandemiaren eraginez abs- tentzioa igoko zela aurreikusten zuten adituek, eta horrela izan da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa- ko parte hartzea %52,8koa izan da, eta Gipuzkoako parte hartzea %54,53koa izan da. Eskualdeari dagokionez, %43,91ko abstent- zioa izan da, duela lau urte bai- no 7 puntu gehiago.

Tolosaldean joera orokorra mantendu da eta EH Bildu eta EAJren arteko lehia izan da na- gusi. PSE-EE izan da hirugarren alderdirik bozkatuena 28 herrie- tan; 1.252 pertsonak eman dute bere aldeko botoa, eta igoera

izan du gainera, 106 boto gehia- go izan ditu. PSE-EEk Alegian egin du gora nabarmen; 15 boto gehiago eskuratu ditu, 40 guzti- ra. Baina eskualdeko herri gehie- netan egin du gora; 17 herritan egin du gora, tartean Tolosan (31), Zizurkilen (19) edo Ibarra- n (14). Berrobin, non alkatetza duen, berriz, jaitsiera izan du, 13 boto izatetik, 6 izatera pasa da. Larraulen ere alkatetza du eta lau boto gehiago izan ditu.

## ELKARREKIN PODEMOS

Elkarrekin-Podemosek kolpe handia izan du hauteskunde- tan, eta joera orokorrarekin bat eginez, eskualdean ere nabar- men egin du behera. Igandean 907 boto eskuratu zituen Tolo- saldean. Duela lau urte Ezker Anitza eta Equorekin batera joan

zen, eta 2.691 boto izan zituen. Galera handia izan da beraz. Oraingoan Equo bere aldetik aurkeztu da eta igandean Tolo- saldean 165 boto izan zituen. Konparaketa zehatza ezin daite- ke egin beraz, baina Equo eta El- karrekin Podemosen botoak gehituz gero, 1.072ko kopurua ateratzen da, 2016ko Elkarrekin Podemoseko emaitza baino 1.619 gutxiago.

Orokorrean, EAJk lortu ditu boto gehien, hamarretik lau boto jaso ditu, eta hiru legebiltzarkide irabazi ditu: 31 izango dituzte. EH Bildu da botoetan igo den ba- karra (23.500 gehiago izan ditu); lau eserleku gehiago, 22 guztira. EAJk irabazi ditu hauteskunde- ak, 50.000 boto galdu arren. Boto hauei atzerrikoak gehitu behar zaizkie ostiralean.

## IRAGARKI LABURRAK

### Alokairua

**Etxea alokagai.** Pisua alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Egoera oso onean dago eta altzariekin. In- teresatuak deitu 677 000 005 zen- bakira.

### Lan eskaintza


**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak

deitu 688 760 577 telefono

zenbakira.

**Entrenatzailea.** Larraun pilota elkar- teak pilotako entrenatzaile lanpostua eskeintzen du. Urte osorako pilota monitorea behar dugu, aste osoko lanaldiarekin. Interesatuak idatzi la- rraunpe@gmail.com korreora uztaile- ren 18abaino lehen. Lanpostuari buruzko xehetasunak emailaz.





**ESKUALDEKO LEGEBILTZARKIDEAK**



**BAKARTXO TEJERIA OTERMIN**  
EAJ

Bakartxo Tejeria Otermin EAJko Gipuzkoako zerrendaburua. Larraulgoa jaiotzez, baina egun Donostian bizi da. Zuzenbidean lizentziatua da. Abokatu lanetan aritu izan da eta Villabonako bake epailea izan zen. Villabonako zinegotzi bezala hasi zen politikagintzan, eta 2003–2007 legegintzaldian bertako alkate izan zen. 2001. urteaz geroztik da legebiltzarkidea, eta azken bi legegintzaldietan Eusko Legebiltzarreko presidentea izan da.



**IBAI IRIARTE SAN VICENTE**  
EH BILDU

Ibai Iriarte San Vicente EH Bilduko Gipuzkoako zerrendako seigarren hautagaia. Tolosarra eta gazte mugimenduetan hezia. AHTaren aurkako mugimenduan aritua. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Gipuzkoako koordinatzaile izan zen 2009 eta 2011 urteen artean. Tolosako alkatea 2011–2015 legegintzaldian eta ondoren, Gaindegiako langilea eta Berriozarko euskara teknikaria izan zen. Gaur egun, Altsasuko Iñigo Aritza ikastolako zuzendaria da.



**MIKEL OTERO GABIRONDO**  
EH BILDU

Mikel Otero Gabirondo EH Bilduko Arabako zerrendaburua. Anoetan jaioa, baina aspaldian Araban bizi da. Filosofia eta historia ikasketak ditu eta ekologian aditua da, besteak beste, Fracking Ez plataforman aritu zelarik. Suhiltzailea da ofizioz Gasteizko suhiltzaileen parkean. Aurreko 2016ko hauteskundeetan koalizioaren Arabako zerrendan bigarren aurkeztu zen, eta hori dela eta azken lau urteetan legebiltzarkidea izan da.

# Asteasuko faxistarekin bat



**Analisia**  
**Ander Leon**

**C**uster Generalaren tankera hartzen diot nik Asteasuko Voxeko boto-emaile bakarrari, lasai, indioz inguratuta, etxeko leihotik begira eta eskopeta garbitzen *Cara al sol* entzuten duen bitartean. Epika pixka bat ere badu, heroizat hartuko du bere burua eta harro aldarrikatuko du interneteko nazien foroetan. Ez dakit zein izango zen botoa ematera eraman zuen arrazoia: Espainia zalea, matxista, arrazista, anti-migratzioa edo ehiztari mindua izan daiteke, edo nazia bere horretan, edo lerdoa. Edozein edo denak izanda ere, igandetik aurrera, gure faxista maitagarria, pozik egongo da, izan ere, nahiz eta arabarren botoei esker zeharka izan, hurrengo lau urtetan bere iritzia ordezkatua egongo baita Eusko Legebiltzarrean. Eta ez da izango horregatik gustura dagoen Asteasuko biztanle bakarra, nire lagun bat... tira, esango dut, ni naiz, (*unpopular opinion*), ni ere pozik nago Voxek lortutako legebiltzarkidearekin, eta egunkaria zakarrontzira haserre bota baino lehen utzidazu, mesedez, zergatia azaltzen.

Lehenengo arrazoia espektakuluarena da. Lau urtez pailazo tankerako parlamentarioak une lotsagarri bezain barreagarriak utziko dizkigu aukera duen guztietan. Ofizioz edo nahiaz gaurkotasun politikoa segitzen ibiltzen garenok material benetan interesgarria izango dugu astero-astero iritziak emateko. Honetaz gain, jakin badakigu txakurrak trenari zaunka egitea bezain eraginkorrak izango direla legebiltzarkide neonaziaren showak; bakarra da eta ez du inorekin itunak egiteko gaitasunik (Iturgaitzen kontrakorik esaten ez badu, behintzat). Erregimene-ko EAJ-PSE alderdiak berdin go-

bernatuko du 41 edo 42 taldekin eta EH Bilduren emaitza bikainak ez zuen askoz gorago egingo 23 postuekin. Eserlekua askoz hobeto aprobetxatuta dago, espektakuluaren ikuspuntutik, Voxek Espainiari begira muntatuko dituen pantomimak plazaratzeko.


Bigarren arrazoia, eta hau serioagoa da: lau urtetan Voxek gure artean faxistak bizi direla gogoraziko digu. Askotan ultraeskuindarren ideiak kanpotarren kontuak direla uste izan dugu, gure euskal oasi perfektu honetan horrelakorik ez zegoela, eta hemen, progresistaz gain, hipertabertzaile eta megaeuskaltzale ginela denok. Neofrankistak gurekin daudela ahazteko joera daukagu, euskal frankistak egon zirela ahazten dugun bezala. Gutxitan konturatzen gara, esate baterako, 1936an Tolosaldea okupatu zuten tropak euskaldun ez osatuta zeudela (nafarrak kasu honetan); beti espainiarren inbasio bezala hartu izan dugu.

**«Uste izan dugu gure euskal oasi perfektu honetan horrelakorik ez zegoela; baina gure artean bizi dira»**

Ba ez, Euskal Autonomi Erki-  
degoan, Voxek 17.517 boto jaso ditu, eta boto horien emaileak ez dira estralurtarrak, hemen bizi dira, gure artean, eta badira, ez dakit nik norekin konparatu, adibidez, Joan Mari Torrealdai bezain euskal herritarrek. Nazi horiek, legebiltzarkidea eduki ala ez, arriskutsuak dira, gure hizkuntza mespretxatu, emakumeen eskubideak zapaldu, autogobernua murriztu edo ezabatu eta etorkinen lana ez erregularizatzea baitira, besteak beste, beraien asmoak.

Adi egon behar dugu, eta adi egoteko ez da tresna txarra nazien astakeriak Legebiltzarreko tribunitatik entzutea noizean behin, azken finean, horrelako jendea egon badagoelako.

Beraz, arrazoi ezberdinengatik bada ere, Asteasuko ultraeskuindarrekin (eta Tolosaldeko gainontzeko 113rekin) bat egiten dut, eta beraien boto alferrikakoa dela medio, piztia gure artean dagoela jakinarazteagatik eskerrak eman nahi dizkiot. Ez zarete pasatuko.



Lurreko seinaleei jarraitu behar izan zieten Tolosako Zerkausion botoa ematea tokatu zitzaizen herritarrek. JOSU ARTUTXA

## Segurtasun eta higie- neurri zorrotzen gaineratik, botoa ematera

Ezohiko moduan, baina arazorik gabe ospatu dira Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak; neurriak neurri, ohikoa baino hautesleku gehiago jarri behar izan dituzte herrietan

**Josu Artutxa / Leyre Carrasco**

Bazen kezka nahikoa, igande goizean, eskualdeko herrietan. Zalantzazkoa zen Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak normaltasun osoz aurrera eraman ahalko ziren edo ez, baina bozkatzeko lekuak prestatzeari ekin eta ireki ondotik, arazorik gabe eman ahal izan zuten botoa herritarrek. «Badaezpada, ordezkoei ere hauteslekuetan geratzeko esan diegu, beste mahairen batean beraien beharra izanez gero edo, baina azkenean, ez da horretarako beharrik izan, eta arduraz jokatu dute mahaikideek», azaldu zuen Tolosako Zerkausion boluntario modura lanean ari zen herritar batek.

Arazorik gabe, baina ezohiko moduan, jakitekoa zen bezala. Higie-  
neurriak neurri

ezarri zuten ezohikotasun hori, jende pilaketak saihestea izan baitzen egiteko nagusia. Musukoa jantzita bertaratzea derrigorrezkoa izan zen: 1,5-2 metroko segurtasun distantzia utzita ilarran itxaron, markatutako ibilbideari jarraitu, gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbitu, eta nortasun agiria mahaiko lehendakariari erakutsi, hark ukitu gabe irakur zezan. Horiek izan ziren, botoa eman aurretik, hauteslekuetan jarraitu beharreko neurriak; herritarrek zorrotz bete behar izan zituzten guztiguztiak.

### HAUTESLEKU BERRIAK

Hauteslekuak aldatzeak nahiz toki berriak ezartzeak eraginda, izan zen non bozkatu ez jakin eta galduta ibili zenik ere. Tolosan, esaterako, Beotibar Udal Pilota-

lekua, Inpernu kaleko lokalak nahiz Zerkausia izan ziren leku berri horietako batzuk. Kultur etxean, musika eskolan edota Emeterio Arrese kaleko zentro sozio-kulturalean bozkatu ohi dutenei eragin zien gehien aldaketak. Beste hainbat herritan ere, bozkaleku bat izatetik bi izatera pasa ziren. Horrela, ohikoa dena baino jende gehiagori egokitu zitzaion hauteskunde mahaietan egotea.

Amasa-Villabonan, adibidez, kiroldegiaz gain, Zubimusu Ikastola eta Gurea antzokia izan ziren hautesleku berriak. «Egoera arrunta balitz, kiroldegian ezarriko lirake 7 mahaia, baina hartu beharreko neurriak direla eta, ezinezkoa zen, eta beraz, leku berriak ezarri behar izan ditugu», adierazi zuen Beatriz Unzué alkateak.



## ERREAKZIOAK



«Gure proiektu politikoa geroz eta indartsuago dago, gorantz goaz eta jarraituko dugu»

**IBAI IRIARTE**  
EH BILDU

Ibai Iriarte legebiltzarkide izango da datorren legealdian. Emaizten balantze oso positiboa egin du, eta abstentzioa kontuan hartuta, igor den alderdi bakarra izan dela nabarmendu du.

Tolosaldeko emaitzei dagokienez, 28 herrietatik 26tan lortu du EH Bilduk gailentzea, eta Iriartek hori «oso garrantzitsua eta esanguratsua» dela esan du; «eta zer esanik ez Tolosa bezalako plaza batean lehenengo postuan jarri izana. Hurrengo udal hauteskundeetara begira oso leku onean jartzen gaitu». Eguneroko lanaren ondorio direla atzokoan lortutako emaitzak dio: «Ikusten dugu EH Bilduren proiektu politikoa geroz eta indartsuago dagoela. Lanketa honetan jarraitu behar dugu. Gorantz goaz eta gorantz jarraituko dugu».

Abstentzioari dagokionez, inoiz baino altuagoa izan da, eta hori ere azpimarratu nahi izan du. «Hauteskundeak deitzeko ez zela garaia iruditzen zitzaigun, eta gainera, ez zeuden deitu beharrik, baina, batzuk, deitzera tematu ziren. Horren inguruko irakurketa egin beharko da, eta norbaitek autokritika egin beharko luke».



«Herri honen alde lanean jarraitzeko gobernu sendo bat eratzeko aukera daukagu»

**OLATZ PEON**  
EAJ

Olatz Peon EAJren hautagaiak nabarmendu duenez, «gizarteak EAJ alderdiarengan eta Iñigo Urkullurengan konfiantza berretsi duela erakusten dute emaitzek».

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban EAJ gailendu dela azpimarratu du Tolosako alkateak. «Gainera, legebiltzarkide bana batu dugu». Hori bai, abstentzioa handia izan dela ere nabarmendu du. «Zalantzarik gabe abstentzioa izan da protagonista, inoizko altuena izan baita. Honek irakurketa lasai bat egitea merezi du. Egoerak eragindakoa da, eta ondorioak izan ditu emaitzetan ere».

Lortutako emaitzek «gobernu sendo» bat osatzeko aukera ematen dutela azaldu du Olatz Peonek, eta «herri honen alde lanean jarraitzeko, hori da garrantzitsua». Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkie igandean bozkatzera joan ziren herritar guztiei, «berezi ki, EAJri konfiantza eman zioten herritarrei eta egun osoan mahaletan egon ziren alderdikideei, eta, baita, Iñigo Urkullu lehendakariari ere, egindako kanpainagatik, kanpaina garbia, gardena eta zuzena izan baita».



«Emaitza onak lortu ditugu, baina, irabazlea abstentzioa izan da»

**JOXEMARI VILLANUEVA**  
PSE-EE

Joxemari Villanueva Tolosako Udaleko PSE-EEko zinegotziak eta Legebiltzarrerako hautagaiak Eusko Legebiltzarrerako igandeko Hauteskundeetako emaitzak ezin direla estrapolatu uste du eta udal hauteskundeetan «atera daitezkeen emaitzekin» zerikusirik ez dutela koan dago.

Abstentzioak hainbat alderditan eragin handia izan duela esan du Villanuevak. EAJk eta PSE-EEK «gobernuan egotearen kargari eutsi» diotela uste du, eta, oro har, «emaitza onak» lortu dituztela ere gehitu du.

Indar abertzaleak gailendu izana, Joxemari Villanuebaren iritziz, gizarte eta ekonomia gaiak lehen leorrora eraman dituztelako izan da: «Eserlekuei dagokienez, alderdi abertzaleak indartuta atera dira. Ez, ordea, diskurtsoan. Osasun eta ekonomia krisiaren testuinguruan, EAJk eta ezker abertzaleak alde batera utzi dituzte nortasun diskurtsoak».

Bestalde, jendeak aurpegi berriak behar dituela pentsatzen du Villanuevak, eta bide horretatik, alderdi sozialistan «apustu egokia» egingen ari dela uste du.



«Krisi testuinguruagatik sortutako abstentzioak kalte egin digu»

**JOSETXO ARRIETA**  
ELKARREKIN PODEMOS

Josetxo Arrieta Elkarrekin Podemos alderdiko hautagaiak igandeko bozetan lortutako emaitzak ez direla onak esan du. Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkie alderdiarengan konfiantza mantendu duten herritarrei.

Igandeko hauteskundeetan izan den abstentzio handia nabarmendu du, eta horrek bereziki kalte egin diela uste du: «Osasun krisiaren testuinguruak %47ko abstentzioa ekarri du eta horrek kalte handia egin digu». Bestalde, esker hitzak izan ditu igandeko hitzorduan emaitza onak lortu dituzten alderdientzat: «Zorionak eman nahi diziet EAJ eta EH Bildu alderdiei, lortu dituzten emaitzengatik».

Emaitzak emaitza, lanean jarraitzeko «konpromisoa» dutela adierazi du: «Euskal gizarteak oposizioan egotea eskatu digu eta bertatik identifikatzen gaituzten politikak defendatzen jarraituko dugu. Besteak beste, publikoaren defentsa, langileen eskubideak eta ingurumena. Hemendik aurrera etapa berri bat hasten da. Gizarte eraldatzeko tresna onena eta eraginkorrena eraikitzeko konpromisoa hartu dugu».



«Ciudadanosekin joan izanak ez du espero bezala funtzionatu»

**PELLO ATXUKARRO**  
PP

Pello Atxukarro Tolosaldeko PP alderdiaren ordezkari eta Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak azaldu duenez, emaitzak ez dira onak izan beraientzat: «Postuak galdu ditugu parlamentuan, eta galeraren zergatia sakonago aztertu beharko dugu».

Hori bai, balantze sakonago baten zain, lehen balantze azkarra egitean, Ciudadanos alderdiarekin elkarrekin joan izanak ez duela funtzionatu uste du Pello Atxukarro. «Ez du aurrez espero genuen bezala funtzionatu. Herritar batzuk antza ez dute ondo ikusi, eta nire ustez ez dute ondo gauditu elkarrekin joan izana, eta horrek botoen galera ekarri du».

Gogoratu du, halaber, Alfonso Alonsoren dimisioa ekarri zuela batuketara horrek: «Dimisio horrek alderdiaren barruan eragin handia izan du, eta hori ere kontuan hartu beharko dugu emaitzak aztertzerakoan».

Abstentzioari dagokionean, oso handia izan dela nabarmendu du, eta horrek ere «kalte» egin diela: «Gure ustez, horrek zuzenean eragin digu, zati handi bat guri egokitu baitzaigu».



### 1 TXINDOKIKO ITZALA abentura parkea

Bi lagunentzako  
bina sarrera

628 947 253 • 943 654 757  
ABALTZISKETA

www.txindokikoitzala.com/eu/ • info@txindokikoitzala.com  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



### harpidedun izateak badu saria zozketa

### 2 LEARTIBAI ONDAREAREN kalitatezko kontserba eta produktu sorta

Laneko Koop. Elkartea  
Okamikako industrialdea, 2 5 A  
48289 GIZABURUAGA  
94 684 20 26  
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



### 3 IZASKUN JATETXEA

Bi lagunentzako  
asteburuko menua

Ibarrako Izaskun  
mendian kokatuta  
943 67 50 17  
Facebook eta Instagram: izaskun.jatetxea

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**





INIGO TERRADILLOS

## «Ikusleak seguru egoteaz gain, eroso sentitzea nahi dugu, etxean bezala»

### IKER GALARZA GURE ZIRKUKO POXPOLO PAILAZOA

Aurtengo udan Orion izango da Gure Zirkua, lehen zutena baino karpa handiago bati esker. Ostiralean hasita, asteazkenetik igandera izango dira saioak, abuztuaren 30a bitarte.

**Josu Artutxa Dorronsoro**  
Amezketak

Ezohiko egoera, eta pandemia bat igarota ere, ez dago ezinezkorik Iker Galartzaientzat (Amezketak, 1977). Beste uda batez, Gure

Zirkuan ariko da. 300 lagun hartuko dituzte saio bakoitzean (19:00etan), neurri guztiak bermatuta. Horietarako, [www.gure-zirkua.eus](http://www.gure-zirkua.eus) webgunean edo Orioko leihatilan bertan (17:00etatik aurrera) eros daitezke sarrerak.

#### Pozik egongo zara, ezta?

Bai. Ilusio handiarekin nago. Gertatu den guztia gertatuta ere, pozgarria da berriro bueltan garaile ikustea. Lanean hasi, errutinari heldu eta martxa hartzeko gogoz gaude. Lehen egoera hau irudikatu besterik ez genuen egin, baina azkenean aurrera egin eta erabaki dugu. Olatu bat harapatzen duzunean, amaierara arte eramaten zaitu.

#### Azken bi urteetan baino saio gutxiago izango dira. Gehiago ere eskainiko zenituzkete?

Ezinezkoa da hori jakitea, ez baitakigu nola erantzungo duen jendeak. Hala ere, lehen saioeta-

rako bizi-bizi ari gara sarrerak saltzen, beraz, ikusten dugu jendea gogotsu dagoela. Ondo egin nahi ditugu gauzak, zentzuz eta poliki. Agian emanaldi berriak iragarriko ditugu, baina auskalo. Oraingo lasai egoteko esan digute udaletik.

#### Saio horietarako, ikusle nahiz langileen segurtasunerako, karpa berri bat ekarri duzue Portugaldik. Nolakoa da?

Karpa zahar bat da, jada itxita zegoen beste zirku batekoa. Polita da, eta tamainaz, lehenago erabili izan dugunaren bikoitza. Hasi batean barrutik hotza zirudien arren, pixkana berotzen doala dirudi, horretarako lanean ari gara behintzat. Ikusleak seguru egoteaz gain, eroso egotea nahi dugu, etxean bezala.

#### Karpan bertan bere eserlekua izango al du ikusle bakoitzak?

Bai. Karpa bikoitza den bezala, harmailetako edukiera ere bikoitza du. Badakigu, berez, edukieraren %60a bete dezakegula, baina %50a beteko dugu, lasaiago ibiltzeko. Guztira, 300 lagun sartuko dira saio bakoitzean. Famili bereko senideek nahiz etxe berean elkarrekin bizi direnek elkarren ondoan egoteko aukera izango dute. Ezezagunen artean, ordea, gutxienez metro eta erdiko distantzia mantendu beharko da. Gainera, nahitaezkoa izango da musukoa jantzita izatea.

#### Eta nolakoa izan da karpa hori lortu, hona ekarri eta hemen gordetzeko prozesua?

Nahiko luzea, egia esan. Albisteak entzutean, Gabonak arte etxean sartuta egongo ginela zirudien. Bagenekien normaltasun berri batean hasi arte ezingo genuela ezer egin. Lan handia zegoen egiteko. Orain, merezi izan duela ikusten duzu, baina atzera begiratuta, ez dut uste berriro gauza bera egingo genukeenik. Hiru trailer behar izan ditugu guztia garraiatzeko. Horri, gai-

nera, Orio bezalako herri txiki batean karparentzako toki seguru bat bilatu beharra gehitu behar zaio. Herritar nahiz udal langileen laguntza ere behar duzu; eta garrantzitsuena, pazientzia.

#### Orioko zeingunetan zaudete?

Futbol zelaiaren ondoan, ibai inguruan. Ondo ezagutzen dugu, lehen ere izan ginelako bertan. Leku lasaia eta atsegina da, lagunekin edo familian etortzeko. Hala ere, pena puntu bat ere badut, hitz emanda genituen herri txikietarako saioak bertan beharra utzi behar izan ditugulako, eta horrekin lehen ematen zion xarma galdu duelako zirkuak.

#### Edukiari dagokionez, emanaldi berriak izango dira?

Iaz egindako saioari eusteko asmoa dugu oraingo. Eboluzio polita izan zuen, eta beraz, horrela abiatuko gara. Gerora, saioak igaro ahala, ikusiko da artista batzuen emanaldiak aldatzen joan ala ez. Etxean sartuta egon garenean ere, kide askok izan dituzte ideia eta proposamen berriak, guztiek dutelako zerbait berria egiteko gogo. Hori du Gure Zirkua, nahitaezkoa dela saioak eboluzio bat izatea.

#### «Futbola ikuslerik gabe hasten bada, ziur naiz zirkura ez dela inor sartuko» esan zenuen. Bada, ez da horrela izan.

Bazen garaia guk ere futbolari noizbait errematea egiteko. Hori bai, auskalo gero futbolak berak nondik sartuko digun gola guri.

#### Zehazki, Orion, kasu berriak zenbatu zituzten duela gutxi. Beldurrik baduzue?

Asko hitz egiten dugu horri buruz. Orion bai, baina non ez? Herri guztietan berdin gabilta, nahiz eta kasu batzuek indar handiagoa hartu. Uzten diguten bitartean, aurrera segiko dugu. Kezkatuta datorrenari lasaitasuna eta segurtasuna bermatu eta transmititzea izango da garrantzitsuena.

### Hilberriak eta urteurrenak



#### Angel Atxotegi Ansa

Agur gure bihotzeko osaba mattea  
Izaera apal ta atsegineko gizona  
Famili bazkarietako urretxindorra

Momentu goxo horiek  
ezin ahaztu!!!  
Irria irtetzen zait  
zure ahots eder hori oroitzean  
Gure abestietan  
betirako Angel!!!

Atxotegi sendiak

ZALDIBIA, 2020ko uztailearen 14an

### hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**Ataria jarrita**  
**Urola Kostako**  
**eta Goierriko**  
**Hitzetan DOAN**

#### Eskelak orain merkeago!

|                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------|
| TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €                               |
| HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €                             |
| ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €<br><small>bez barne</small> |


ESKELAK • [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



# Bandera etxean geratu da

Tolosaldea traineruak ETE Ligako lehen jardunaldia irabazi du, TAK klubak babestutako Tolosaldeko I. Ikurrina bereganatuz



Behin zaleen aurrean, Tolosaldea traineruko patroiak gogoz astindu zuen bandera Pasaiaiko uretan. IMANOL GARCIA LANDA



Eskualdeko arraunlariak, estropadako ziaboga batean. I.G.L.

## Imanol Garcia Landa

Posible zen, eta azkenean gertatu da. Lehendabizikoz TAK klubak bandera bat babestu du ETE ligan, Tolosaldeko I. Ikurrina izena jarritz, eta Tolosaldea traineruak irabazi zuen, asteburuan, Pasaian jokaturako denboraldiko lehen estropada. San Pedro klubaren azpiegiturak erabiltzen ari da aurten Tolosaldea trainerua, eta bere entrenamenduetako uretan irabazi berri du bandera, egun biribila osatuz. Hori bai, lau ehuneneko alde bakarrik atera zion bigarren traineruari, Zumaiari, erlojuaren aurka egin zen estropadan.

Oso pozik azaldu da Malen Oiarzabal arraunlaria lortutako banderarekin: «Uretan ez dugu gure bertsio onena eman, eta hor ezjakintasun puntu bat eduki dugu, baina kronoa gure alde

egon da eta oso pozik gaude etxeko bandera etxean geratu delako. Helburua hori zen eta hemendik aurrera gora egingo dugu». Oiarzabalek gaineratu duenez, urduritasuna gailendu zen; «baina defendatu dugu defendatu behar genuena. Denbora oso gutxigatik, baina gure alde joan da». Hurrengo estropadari begira «burua hotz» izan behar dutela dio: «Honek ez du ezer esan nahi. Estropadak banaka borrokatu behar dira».

Lehenengo txandan lehiatu ziren Tolosaldea trainerukoak, laugarren lekuan, hain justu, Zumaiaren atzetik. Hasiera batean arraunlariak jaso zuten informazioa zumaiarrendandik segundo batera geratu zirela izan zen. «Buru makur geratu ginen», esan du Oiarzabalek, «baina gero esan ziguten lau ehunekorengatik irabazi diegula, eta orduan ure-

tan geratu ginen bigarren txandan gertatuko zenaren zain. Urduritasun handiz bizitu genuen, eta klubeko lehendakaria pasa zen ondotik esanez hortxe geundela, eta gero zaleek esan ziguten irabazi egin dugula eta eztanda bat izan zen». Pozarren zeuden arraunlariak, baina Oiarzabalek gogora ekarri du datorren asteburuan, Getarian, «berriro zero-tik» hasten direla.

## ORDEZKARIAK, POZARREN

Patxi Frances entrenatzailea gustura agertu da garaipenarekin, baina ontzia nahi bezala ez zela joan ere nabarmendu du: «Ondo hastea zen gure asmoa, postu on batekin, eta lehen estropada hau nahi genuen egin, urduritasunak kentzeko. Lehiatu den traineru gazteena izan da gurea eta urduritasuna beti azaleratzen da. Gauzak egiten jakin arren, gero urduritasunak pixka bat desegin egiten du landutakoa». Bukaeraraino borrokatu zutela gaineratu du: «Oso gutxigatik irabazi dugu, baina irabazleak bakarria izaten da, eta guk lortu dugu azkenean garaipena. Zentratzen ez bagara, zaila izango da postua mantentzea. Taldeak badaki zer egin behar duen, arraun egiten badaki, eta orain zentratuta egon behar dugu datozen bi hilabeteetan».

Entrenatzaileak argi du irabazteko entrenamenduetan be-

zala egin behar dela arraun. «Entrenamenduak oso onak izan dira, baina estropada ez da hain ona izan. Ez dut entrenamenduetako ontzia ikusi, beraz, uste dut oraindik badugula estropadetan hobetzeko aukera. Denboraldi berezia da, eta seguru ontzi guztiak ere pentsamendu berekin daudela». Hori horrela, gogora ekarri du San Juanek Oriotik arraunlariak jaso dituela, Hibaikak eta Zumaiak kanpotik arraunlariak ekarri dituztela, eta traineru horiek denbora pixka bat beharko dutela taldekideak elkarrekin hobeto moldatzeko. «Bestalde, oso ondo ikusi dut Ondarroa, eta uste dut aurkari zaila izango dela itsasoko estropadetan». Francesek uste du «oso konplikatua» izango dela liga, eta adierazi du horri begira lan egiten jarraituko dutela.

Sabino Alijostes TAK klubeko lehendakariak berak eman zien bandera Tolosaldea traineruko arraunlariari. «Sekulako poza hartu dugu», esan du. «Guk jarri dugu bandera, lehenengo Tolosaldeko Ikurrina izan da, eta guk irabazi dugu. Dena etxean geratu da». Lehenengo txandan izan zen urduri Alijostes, bere denboren arabera ikusten zuelako Zumaiako segundo bat aurretik zihola. «Bigarren txandan ikusi da tartea bagenuela. Hori bai, harrituta geratu nintzen Ondarroarekin, ondo ibili delako, baina sei segundo atera dizkiogu eta horrelako uretan denbora asko da». Gogora ekarri du liga hasi besterik ez dela egin, eta puntuak pilatzen jarraitu behar dela. Behin estropada amaituta, Tolosaldea traineruko hainbat zale elkartu zen San Pedro klubaren aurrean, arraunlariarekin batera garaipena ospatzeko.

## ETE LIGA

### 1. jardunaldia

#### Tolosaldeko I. Ikurrina

| Tolosaldea (9 puntu) | 10:56,74 |
|----------------------|----------|
| Zumaiako (8 puntu)   | 10:56,78 |
| Ondarroa (7 puntu)   | 11:02,58 |
| San Juan (6 puntu)   | 11:07,48 |
| Hibaika (5 puntu)    | 11:11,40 |
| Deustu (4 puntu)     | 11:16,28 |
| Isuntza (3 puntu)    | 11:18,10 |
| Lutxana (2 puntu)    | 11:23,26 |
| Lapurdi (puntu 1)    | 11:39,32 |

## Azken txanpan Mujikak ezin izan dio Otañori eutsi, final-laurdenetan

Jexux Mari Mujikak ezin izan zuen Eneko Otaño gaintitu Lezan jokatu zen Urrezko Aizkolarien Txapelketako kanporaketan

### I. Garcia Landa Ibarra

Lehen bi probak aurretik amaitu zituen aizkolari ibartarrak, segundo batzuen tartea hartuz, baina proba luzea zen hirugarrena, eta ezin izan zion eutsi. «Hasieratik eraso jotzea izan da nire asmoa», zioen Mujikak. «Lehen bi probetan segundo mordo bat galduko nituela uste nuen, eta gero, iraupen handiarekin nengoenez, ea proba luzean eutsiko nion, baina azkenean neroni lehertu naiz. Aurrenetik egin ditudan joaldiek gero zigortu egin naute azkenengo lanean».

Lehen lanean sei segundo atera zizkion Mujikak, eta bigarren lanean, bederatzi. Hori horrela, 15 segundoko abantailarekin hasi zuen hirugarren proba. «Nitue-nak emanez atera naiz hasieratik. Gero harrapatzen hasi zait, eta azken egur handiarekin hasterako berak pasa nau, eta etsi egin dut, ezin niolako jarraitu».

Beste saioetan baino lan handiagoa jarri zietela zioen Mujikak, egurrak «latzak» zirela azalduz. «Halako egur handiak moztu gabe geunden, eta sorpresaz harrapatu gaitu, eta azken lana dezenteko zigorra izan da». Galdu arren, «oso gustura» zegoen egindako lanarekin. «Ikusi dut pisuz nahiko ondo nagoela, eta orain gihar pixka bat hartu behar dudala. Aurkaria zein zen ikusita, test on bat egin dut».



Mujika ibartarra, Lezan. EGURSPORT





**ASTEARTEA, 2020KO UZTAILAK 14**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** **943 30 43 46**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# ASTEARTEA 14

## AGENDA

### Deialdiak

**Tolosa.** Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen partaide-tza prozesua, 18:00etan. Pertsona bakoitzak, bere ekintzen bitartez, Tolosa nola suspertu, eraldatu, sustatu eta hobetu dezakeen hausnartzea da saioen helburua. Gaurko saioan, ingurumena izango da landuko den gaia. Parte hartu nahi du tenek galdetegi bat bete beharko dute. Saierei buruzko informazio gehiago nahi duenak Gobernantza sailarekin jarri daiteke harremanetan 010 telefonora deituta, *gobernantza@tolosa.eus* helbidera idatzita edo WhatsApp bidez, 688 768 458 zenbakian.

## ATARIA IRRATIA

**09:00-12:00. Pasahitza.** Denboraldian zehar izan diren kolaboratzaileen tarteen eta elkarriketen aukeraketa.

**14:00. Entzuteko jaloak.** Musika.

**16:00. Zebrabidea.** Arroza sareko irratien artean eginiko magazina.

**20:00. Kantazgora.** Musikarien proposamenekin osatutako saioa.

## 28 KANALA

**11:00.** Elkarriketap (Mikel Aramendi)

**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**16:30.** 1, 2, 3 hemen da Miru!

**17:00.** Adinberri

**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

**22:00.** Leihotik Begira (Bidania-Golatz)

**22:30.** Zer jan

## FARMAZIAK

### Gaur

**IBARRA. Egunekoa.** Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

**TOLOSA. Gauekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA



**Gaur.** Giro lasaia izango dugu, baina ez erabat argia. Egun osoan ipar-mendebaldeko haizea ibiliko zaigune, zerruan tarteka hodeitza handi xamarra edukiko dugu, batez ere, egunaren lehen eta azken orduetan. Egunko erdiko orduetan giroa argixeagoa izango da. Azken orduetan euri-lan gar pixka bat egingo du. Tenperaturak jaitsi eta ez dira 20-21 gradutik pasako.



**Bihar.** Giro motela eta freskoa izango dugu. Frontexka batek giro estalia utziko digu eta gainera euri pixka bat ere izango dugu. Euri zaparradak ahulak izango dira, baina egun osoan zehar emango dira eta giro bustia izango dugu. Haizeak ipar-mendebaldetik jotzen jarraituko du eta termometroak beste koskatxo bat egingo du behe-er, maximoak 19 eta 20 gradu artean geratuz.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik.



## CAMINOS EN ETA ALONSOREN TREBEZIA

**Eguraldi ederrarekin eta arauak zainduz, adin guztietako jendea bildu zen larunbat arratsaldean Altzoko plazan Irene Caminos eta Jabier Alonso bike trialeko kirolarien erakustaldiaz gozatzeko. Harrera ona izan zuen saioak, eta Caminos tolosarrak eta Alonso gijondarrak ordubeteko erakustaldia eskaini zuten eta, ondoren, posterrak sinatzen aritu ziren.** ATARIA

## ZORION AGURRAK



### ZORIONAK

Ohitu gara zure sagua mugitzen ikustera, baina hamaiketakorako etorri hona!

## ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20  
Tolosa

www.ataria.info · 107.6 fm

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...

